

WOLAN
PRES

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

MAILOPE

Euskal Herria Mendi Erronka

Ultra Trail 67km



7:23:56

270
2019ko ekaina

TOKIKOM

EMAKUMEZKOAK ERE EUSKAL HERRIA MENDI ERRONKAN



ELAIDE BERRIA HELDU DA

www.elaide.eus euskaraz ikasten ari direnendako erreferentziazko webgune izatea bilatzen duen web orria.

Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuek elkarlanean sortu dute *elaide.eus* webgunea, euskaraz ikasten ari direnei laguntza eta baliabideak eskaintzeko helburuarekin.

Baina zer esan nahi du ELAIDEk?

ELAIDE hitzak bi esanahi ditu, batetik, hizkera edo hizkuntza erran nahi du; eta, bertetik, norbaitekin tratua duen pertsonari edo pertsona ezagunari egiten dio erreferentzia. Eta honek guztiak baduzu zentzua ELAIDEn.

Zer aurkituko dute sartzen direnek ELAIDEn?

Euskara bizitzeko eta gehiago ezagutzeko tresna bat, euskaraz ikasten ari direnei lagungarri izanen zaizkien informazio eta tresnekin.

Euskara ikasleentzako txokoa da ELAIDE. Euskarara hurbildu nahi dutenendako, ikasketa prozesuan aurrera egin nahi badute, euskaraz egiteko aukerak eta baliabideak bilatzen dituzten horiendako toki ezin hobea da ELAIDE. Egitasmo honen helburua da euskara eta euskal kultura euskara ikasleen eta berau ikasteko asmoa dutenen eskura paratzea, eta aberastasun hori partekatzea; ELAIDE ikasketa prozesuan bidelagun izanen dute ikasleek.

Bertan aurkituko dituzte: informazio eguneratua eta interesekoa, euskarazko aktibitateen agenda, bi asteaz behingo buletina, euskara ikasteko diru-laguntzei buruzko informazioa, euskara ikasi eta praktikatzeko baliabideak, hainbat webgune eta proiektuetara estekak (euskaltegiak, mintzapraktika, Euskaraldia, tokiko hedabideak, etab.).



IÑAKI ARREGI BEKA

Iñaki Arregi beka sortu du UEMAk, udalerrri euskaldunen garapena aztertzeko, ikerketa sustatzeko eta euskal soziolinguistikaren inguruko ezagutza areagotzeko. Eusko Jaurlaritzak babestuko du beka, eta bi lan sarituko ditu lehen deialdian, bakoitza 5.000 euroekin.

Udalerrri euskaldunak garatzea da euskararen arnaguneei sendo eusteko modu eraginkorrena. Ondorio horretara heldu ziren iaz UEMA, Kontseilua, Udako Euskal Unibertsitatea eta Gaindegia, eta udalerrri euskaldunak garatzeko hainbat irizpide eta oinarri proposatu zituzten, horiek guztiak hainbat arlotako adituekin batera aztertu ondoren. Orain, oinarri horiek aintzat hartuta, udalerrri euskaldunak garatzeko adibide praktikoa aztertu eta abiarazi nahi dituzte agintaldi berrian. Horretarako, Iñaki Arregiren omenezko beka sortu du UEMAk, eta bi lan sarituko ditu lehen deialdian, bakoitza 5.000 euroekin.

Euskararen biziberritzean eta bilakaeran, eragin nabarmena dute euskara zerbitzuetatik edo hizkuntza politikako sailetik aparteko beste sailetatik egiten diren politika publikoek.

Hau jakinda, herri erakundeen politikan prebentzioaren ikuspegia txertatzeko ildoak lantzea izan zen lehen urratsa, proiektu zehatzek kalterik ez eragiteko gune euskaldunen euskarazko gizarte bizitzan eta kultur garapenean.

Iazko jardunaldian, berriz, beste urrats bat egitea eta prebentzioaren ikuspegitik garapenera igarotzeko beharra nabarmendu zen, eta udalerrri euskaldunen eta arnaguneei garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak adostu ziren. Oinarri horiek bideratzeko egitasmo zehatzak abiaraztea da orain asmoa, udalerrri euskaldunak garatzeko eta arnaguneei bizirik eusteko.

5.000 euroko bi lan sarituko dira zehazki, udalerrri euskaldunak garatzeko proposamen zehatzak eta bideragarriak bildu nahi ditu Iñaki Arregi Bekaren lehen deialdiak. UEMAk sortu du beka, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren babesarekin, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Kontseiluarekin eta UEUrekin elkarlanean.

Lehen deialdi honetan, 5.000 euroko bi lan sarituko dira. Proposamenak eta lehen laginak aurkezteko epea uztailearen 24an amaituko da, eta epaimahaiak irailaren 20an jakinaraziko du diruz lagundutako ikerlanak zein izango diren. Egun horretatik aurrera, saridunek bederatzi hilabeteko epea izango dute laginak garatzeko eta ikerlanak aurkezteko. Amaitzean, gutxienez 75 eta gehienez 200 orrialde izan beharko dituzte saritutako lanek.

Beka norbanakoek edota ikerketa egiteko berariaz sortutako lantaldeek jaso ahal izango dute.

Informazio gehiago: www.uema.eus

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Joxe Mugiro.

11 KUXKUXEAN: Ekaineko zorion agurrak.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Hauteskundeak.

19 OREKA OSASUNTSUA

20 KULTURA

22 ERREPORTAJETXOA: Intsumisioa.

24 KIROLA : EHME.

28 PLAZATIK PLAZARA: Gaztari erakusketa

30 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkartea.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri Ikastetxea, Lontxin Zubillaga, Mikel Rekalde, Pedro Saralegi, Ioseba Ordoki, Igor De Castro, Vega Botello eta AEK euskaltegia.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra





Leitzara bizikletaz

Maiatzaren 14an, 5. eta 6. mailako ikasleak Leitzara bizikletaz joan ginen.

Goizeko 9:30ean eskolatik atera eta Plazaolako bidetik joan ginen. Bidean zehar hiru aldiz gelditu ginen atseden hartzera. Lehenengo geldialdia 3 kilometroko tunelera sartu baino lehen egin genuen, denok elkarrekin joateko. Bigarrena tunela pasata izan zen eta hirugarrena kilometro bat geroago, zelai polit batean, non hamaiketakoak jan genuen.

Hamaiketakoak jan ondoren segituan Leitzako plazara iritsi ginen. Leitzara iritsita pixka bat jostatu eta 12:00etan batzuk bazkaltzen hasi ginen gose ginelako. Batzuek ogitartekoak jan genituen eta beste batzuek makarroiak. Bazkaldu ondoren, batzuk pelo-

tan jostatzerara eta beste batzuk parkera jostatzerara joan ginen.

Bueltatzerako garaian, Leitzatik ateratzerakoan, aldapa gora gogor bat zegoen eta nekaturik iritsi ginen goraino. Ibilbide motzagoa egin genuen eta berriro ere, tunelaren sarrean geldiunea egin genuen.

Arratsaldeko lauretan itzuli ginen eta osotara 27-30 kilometro inguru egin genituen, joaterakoan 15 kilometro eta itzultzerakoan berriz, 12 kilometro. Joaterakoan ibilbidea erraza izan zen baina bueltatzerakoan pixka bat zailagoa egin zitzaigun.

Lekunberrira iritsi ginenean, Ibarberri eskolako patiora sartu eta txangora etorri ziren guztiekin argazki bat atera genuen.

Eguraldi bikaina egin zuen, txangoa oso ongi egon zen eta guztiok ederki pasa genuen.

Ibarberriko 5.B mailako ikasleak.



eskolatik
mailopera



**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEGOXO



JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



OSTATU ZAHARREKO TEILATUA BEHERA

Joan den hilaren 10ean, oraindik Lekunberri herria lotan zela Alde zaharreko Ostatu zaharra edo Alpagatenea izenez ere ezaguna den etxe-ko teilatua behera erori zen. Eraikinak urteak daramatza hutsik. Zorionez ez zuen ezbehar larrikeria eragin.



ARAIZKO UDALETXEKO BERRITZE LANAK

Araizko udaletxe-ko eraikinean hainbat berritze lan egiten hasi dira. Nafarroako Gobernu-ko Tokiko Inbertsioen diru-laguntzari esker Araizko Udalak bere egoitzaren teilatua berritu eta leihoak aldatuko ditu. Aurreikuspenen arabera, ekainaren amaierarako amaituko dituzte lanak.



OGIA EGITEN IKASTEKO TAILERRA

Ekainaren 9an, 10:00etan, ogia egiteko tailerra eskainiko dute Lezaetako okindegian. Ogia modu tradizionalan egiten ikaste-ko aukera ezin hobea izanen da 25 eurotan. Animatu izen ematera (626 13 84 05 / 948 11 31 25).

bertso berriak Mailoperi jarriak: Joxe Mugiro (Aldatz)

*Garestik Gasteizera
eskutik eskura.
Herri oso batean
sortu du lotura,
lekukoan mezua.
Hartu ohitura,
euskara hitz egin ta,
zabaldu mundura.*

*Argazkian ikusten
jendea korrika,
festa giroan doaz
guztiak irrika.
Euskararen kutsua
banatzen herrika,
behera joan zan baina
utzi zigun klika.*

Doinua: Haurrak ikas zazue.

Hurrengoarentzako puntua:

San Juan ta san Pedro,
hurrena da Fermin.

Oinak:

Udara, bagara, festara, algara.



“Bakarrik egoteak beldurra ematen digu”

Lorea Zulet Ruiz psikologoa da eta aurki eskualdean zerbitzua eskaintzea espero du. 25 urteko lekunberriarra kolaboratzaile gisa izanen dugu aurrerantzean gure aldizkarian.

Lorea, zu, psikologoa zara baina zertan bereziturik zaude?

Psikologia ikasi nuen eta ondoren osasungintzan lan egiteko masterra egin nuen. Batez ere familia eta bikoteekin lan egiteko terapietan eta familia giroan, ikastetxeetan nahiz bikoteen artean sor daitekeen biolentziaren prebentzioan eta tratamenduan berezitu naiz.

Gaur egun zertan zabilta lanean?

Orain ikasleentzako akademia batean egiten dut lan. Bertan familientzako zerbitzua eskaintzen dute, euren seme-alabei ikasten nola lagundu diezaioketen eta egunerokoan sortzen zaizkien arazoan aurrean laguntzeko. Baina uztailetik aurrera nire kabuz lan egiten hastea da nire asmoa eta oso pozik nago proiektu berri horrekin. Logroño eta Iruñean eskainiko dut zerbitzua

“Egungo bizimoduarekin ez gara gelditzen pentsatzera benetan nola gauden”

eta Lekunberrin ere eskaintzea gustatuko litzaidake.

Osasungintzan psikologiaren alorrean lan handia dago egiteko...

Bai, oso gutxi landu da eta estigmatizazio handia dauka, oso handia. Psikologia oraindik eroen kontua da askorentzat. Badirudi zerbait larria eduki behar duzula psikologoarengana joateko. Eta joanez gero, inguruko ei esatea kostatzen da. Ez dugu esaten dentistara goazenean bezain erraz. Berehala galdetzen dizute: “Baina ongi zaude?”. Ameriketako esaterako, askoz ere normalizatuagoa dago eta Ingalaterran ere gizarte zerbitzuetan dauden psikologia zerbitzuek ongi funtzionatzen dute, hemen ez. Oraindik asko dago egiteko. Medikuek kasu askotan zuzenean psikiatriara bideratzen dituzte kasu asko eta hor arazo asko pilulekin tratatzen dira. Medikuei eurei ere kostatzen zaie psikologoarengana bideratzea.

Eta gaur egungo gizartean behar handia ikusten duzu?

Bai, egungo bizimoduarekin oso azkar goaz eta ez gara gelditzen pentsatzera benetan nola gauden. Eta ondoren, ezusteko egoera edo ezbehar baten aurrean, gaindituta sentitzen gara, edo gaixo, takikardiekin eta ez dugu jakiten arrazoia.

Egoera emozionalek fisikoan ere eragin zuzena izan dezakete...

Gorputzak seinaleak ematen dizkigu beti eta tarteka gelditu eta gure barrura begiratzeko beharra daukagu, ez gara fisikoa soilik. Gorputzaz gain



Lorea Zulet aurki zuzeneko psikologia zerbitzua eskaintzen hasiko da. Arg: Labrit.

emozioak ere zaindu behar dira. Eta jendeak uste du horretarako ez dela laguntzarik behar, edo ezin diela inork lagundu.

Tresnak eskaintzea da hain zuzen ere psikologo baten lana, ezta?

Hori da! Psikologoaren lana ez da sendatzea, psikologo batek ezin zaitu sendatu. Gure lana da ohartaraztea non zauden, nola zauden eta egoerari aurre egiteko baliagarriak diren tresnak erakustea. Baina zuk zeuk sendatu behar duzu zeure burua. Psikologoaren lanik handiena entzutea da eta ondoren, egoera baterako edo besterako tresna egokienak eskaintzea pazienteak bere buruarekin aplikatu ditzan.

Biolentziarekin lotutako arazo asko daude?

Ez dut uste gaur egun lehen baino gehiago dagoenik, baina gehiago ikusten da eta hori positiboa da, informazio gehiago dagoelako eta ondorioz, laguntza gehiago eskatzen delako. Hala ere, bide luzea dago oraindik lantzeko, adibidez genero bortizkeriaren arloan. Aldiz, ikastetxeetan kontzientzia gehiago dago bullying kasuekin, gero eta protokolo gehiago jartzen dira martxan hau ekiditeko edo honi aurre egiteko. Beste alde batetik, umeak etxean ikusten dutena jarraitzen dute normalean, hori garbi ikusi nuen Ilundaineko CEA (Arangurengo Heziketa Zentroa) instituzioan, non, delituak egin dituzten adingabeak dauden. Askok familia desegituratuetatik datoz, non gurasoek ez dituzten aski baliabide ekonomiko, edo bizitza trapitxeo eta lapurretak egiten ateratzen duten aurrera. Askok patroiz bera jarraitzen zuten. Beste askok droga kontuetan sartuta daude, horrek eragin dezakeen jarrerekin.



Lorearen ustez zuk zeuk sendatu behar duzu zeure burua

Eta nola lagun diezaieke psikologo batek?

Tresnak ematen eta drogarik ez dutela behar ikusarazten. Kasu hauetan normalean drogak sufrimendu asko estaltzen du. Familia batzuk pobrezia egoeran daude, edo ez dituzte ikastolara eramaten, edo dirua lapurtzen edo ahal dutena saltzen lortzen dute eta euren seme-alabek ikusitakoa errepikatu baino ez dute egiten.

Eta akademian lanean zabiltzan honetan, zein behar ikusten dituzu?

Gurasoek euren seme-alabekin autonomia landu beharko lukete. Guraso asko tematu egiten dira euren seme-alaben eskolako lanak kontrolatzearekin, eskolara gaizki eginda eraman ez ditzaten. Eta ez dira ohartzen etxera ekartzen dituzten lanak ikasteko direla eta gaizki egiten badu eskolan zuzenduko dituztela. Baina ez diete uzten euren kabuz egiten. Eta berdin etxeko lanekin. Ez diete erakusten nola egin behar diren. Eta noski haur horien autoestimua oso baxua izaten da. Azterketara joan eta batzuetan ez dute asmatzen bakarrik nola egin.



“Psikologoaren lanik handiena entzutea eta tresna egokienak eskaintzea da”

“Bakardadeaz gozatzen ikasi egiten da, baina hasieran ez da erraza”

Edo nerabegarora iristean gurasoak kexatu egiten dira etxeko lanekin laguntzen ez dutelako. Nola lagunduko du ba ez badiozu erakutsi? Edo nola izanen da arduratsua ez badiozu autonomo izaten erakutsi?

Helduetan artean berriz bakardadearen sentimendua oso orokorturik omen dago...

Gertatzen dena da bakarrik egoteak beldurra ematen digula, bakarrik gaudenean gehiago pentsatzen dugulako eta buruan ditugun mamu guztiei aurre egin behar diegulako. Helduen kasuan arazo nagusienak bakardadea, estresa eta lana dira. Estresaren kasuan batzuei kirola egitea ongi etortzen zaie, beste batzuei meditazioa, yoga...

Harrigarria da azken urte hauetan meditazioak edo yoga bezalako diziplinak izaten ari diren arrakasta...

Bai, azkenean bizi erritmo honen erdian momentu batez gelditu eta zurekin konektatzeko baliabideak dira. Ez gaude ohituta gurekin konektatzera. Zenbatetan hartu izan dugu kafea bakarrik esku artean teknologia hartu gabe? Edo kontzertu batera joan eskukoa poltsikotik atera gabe?

Ez dakigu bakardadeaz gozatzen ere?

Ez, gehiengoak ez daki. Eta hori ikasi egiten den gauza bat da. Baina hasieran ez da erraza, mamuak ateratzen direlako barrutik...

Baina garrantzitsua da bakarrik egoten ikastea, bizitzako momentu batean edo bestean bakarrik egonen garelako, ezta?

Bai. Nik beti gomendatzen dut bikotekide batekin hasi baino lehen bakarrik egoten ikastea. Askok egin izan dugu bikotekide batekin moztu eta jarraian beste batekin hasi, bakarrik sentitu nahi ez dugulako, edo gizartean suposatzen duen estigmarengatik. Eta bikotean egonik ere bakarrik egoten jakin behar da. Guretzako denbora hartu behar dugu, gure intimitatea izan, hori garrantzitsua da.

Zeintzuk dira pertsonen bizitzan arazo gehien eragin ohi duten egoerak?

Psikologian badira gizakiaren bizitzan mugarriztat ditugun zenbait momentu, estresa sortzen dutenak: jaiotzak, jaunartzeak, bikotekidea aurkitu edo ezkontza antolatzea, erretiroa, seme-alabak etxetik doazenean, heriotzak...

Beraz, horren aldakorra den bizitzako momentu horiei aurre egiteko tresnak behar ditugu...

Bai. Eta badira pertsona batzuk oso ongi egokitzen direnak, eta badaude beste batzuk kostatzen zaienak eta birkokatzeke eta aurrera egiteko laguntza txiki bat behar dutenak.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
 Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
 948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
 ARBEONDO HARATEGIA
 Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
 HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
 948 50 43 31
 Lekunberri

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
 Betelu 31890
 948 513 083
 696 732 290
 aitzberri@hotmail.com

Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia Beteluko festetan ateratakoa da.

Ezkerretik eskuinera: Joseba Satrustegi, Ibai Telletxea, Iosu Estanga, Javi Urtiaga, Belen Saralegi, Eider Argiñarena, Maria Sotil, Rakel Estanga, Yolanda Eskamendi, Garbiñe Sasiain eta Amagoia Telletxea.

nor da nor?

Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidal diezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM

ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

Etorkizun hurbilean etengabe



●● Mikel Hernandez

lepa Pello!! Zer moduz?? Gaur, apirileko hirugarren astean notizia izan zen gai batekin nator, Parisko Notre Dame Katedraleko sutearen berriarekin, hain zuzen ere. Izan ere, badirudi sekulako drama izan zela Parisko hiriarentzat nahiz artearentzat hain garrantzitsua izan den eraikin ikusgarri hau suak kiskalita ikustea. Noski pena ematen duela, baina badira munduan arreta gehiago merezi duten gaiak eta, tamalez, ahaztu ditugunak.

Non gelditzen dira Siriako Gerra Zibila, Haitiko gatazka edota Mediterraneoko milaka errefuxiatuaren drama? Egun hauetan telebistan gutxi entzuten da gauza hauei buruz. Noski, mundu kapitalista honetan etekina bilatzen den heinean, komunikazio bideek ikusleria erakartzeko estrategiak behar dituzte, eta orain gehiago saltzen du Notre Dameko suteak milaka biztanleren bizia aurretik eraman dituzten gatazkek edota oraingo egoera larriek baino. Tristeza, baina, nire ustez, hala da.

Bestalde, ikusgarria bezain sinestezina egiten zait bi egunen buruan Frantziako aberats handienek 850 milioi euroren diru laguntza eman izana Katedrala konpondu ahal izateko. Tamalez, fortuna handi hauek atzetik, nonbait, etekinen bat bilatuko dutela uste dut. Egun hauetan, sare sozialetan egoera ezberdinen aurrean nola erantzuten den salatzen duten irudi asko ikusi ditut. Eta guztiek salatzen zuten nola egoera ezberdinen aurrean (kasu honetan, alde batetik, Notre Dameko sutea, eta bestalde, Siriako gatazka) modu ezberdinean erreakzionatzen den.

Mundua geroz eta globalizatuagoa dagoela uste dut, baina globalizazio horren barruan, individualismoa nagusitzen ari da. Gauzak musu-truk egitea garestitzen ari da, ekintzak bihotzez egitea, alegia. Beste aldean, egindakoarengatik zeozer trukean jasotzearen jarrera geroz eta ohikoagoa da. Zorionez, badira oraindik ere, euren interesen gainetik, besteen ongia eta ongizatea bilatzen duten pertsona nahiz erakunde altruistak. Nola ikusten duzu kontu hau, Pello? Hurren arte!!



●● Pello Azpiroz

Kaixo Mikel, azken txanpan sartua nabil ikasketetan eta egia esan ikasturtea bukatzeko gogoak daukat. Notre Dameko sutearen inguruan sortu den zurrumbilo mediatikoarekin, berriro ere, agerian geratu da batzuen euro-zentrismoa eta zurikeria.

Nahiz eta sinestuna ez izan, horrelako katedral bat erretzeak ez gintuzke poztu beharko. Ezin dut ulertu nola poztu diren batzuk katedral bat erre delako, soilik Eliza Katolikoarekin daukan loturagatik. Balio artistiko handiko ondare material baten galera inoiz ez da berri ona. Hori bai, gertatzen den tokiaren arabera, komunikabideek ematen dioten trataera oso desberdina da.

2015ean ISISek Palmiran (gizateriaren ondare materiala izendaturiko tokian) egindako txikizioak ia ez ziren agertu albistean Notre Dameko sutearekin alderatuz gero. Irailean Brasilgo Museo Nazionala erre zenean ere ez zuten ezer esan komunikabideetan. Buruan sartu zaigun ideia bat da Europa kokatzen dela historiaren eta garapenaren erdigunean.

Denbora gutxian Frantziako milioi asko dituzten batzuek ehunka miloi eman dituzte (Vuittonen, L'Oréal, Gucciren... jabeak) katedrala berritzeko. Amorrua sortzen dit ikusteak batzuetan zer gutxi kostatzen zaien dirua ematea gizartearen aurrean beraien buruak zuritzeko eta zergekin zerikusia duten onurak jasotzeko. Katedral historiko hau berritzeko hainbeste diru eman baldin badezakete, zergatik ez dute beste hainbeste diru ematen beraien milaka langileen bizi eta lan baldintzak hobetzeko? Edo bere herrialdean beharra duen jendeari laguntzeko? Edo ikerkuntzan inbertitzeko? Gehiago gorai patu dira dirudun hauek eginiko donazioak, katedrala salbatzeko beraien bizitzak arriskuan jarri zituzten suhiltzaile horiek baino. Horiek dira niretzako heroiak.

Notre Damen gertaturikoa tragedia bat da zalantzarik gabe eta merezi duen garrantzia eman behar zaio, baina ezin gara euro-zentrismo ikuspuntu horretan erori etengabe. Ongi segi eta hurrengora arte!!!





Zuriñe eta Goreti Estanga Jareño
 Ekainaren 30ean, 9 urte.
 Ekainaren 16ean, 6 urte.
Zorionak bikote!! Ongi pasa zeuen urtebetetzean, jarraitu orain arte bezain alaiak izaten. Muxu pottolo-pottolo bana aitaxoren eta amatxoren partez.




Manex Torrado
 Ekainaren 25ean, 12 urte.
*Etxeko osasunzale sutsuenari, zorionak!!! Ongi pasa zure egunean eta udako oporretan!!
 Julen, aita eta ama.*



Joane eta Ireber
 Ekainaren 23an, 10 urte.
*Zorionak bi sorgintxo politei. Egun ona pasa eta gaua, suaren gainetik saltoka bukatu dezazuela.
 Muxuak, zuen familiakoen partez.*



Eneko Oreja Altuna
 Ekainaren 23an, 8 urte.
*Zorionak pottoko! Koparik gabe ere txapeldun bat zea guretzako! Aupa Eneko, ongi-ongi pasa zure eunean.
 Muxu haundi bat etxeko guztin partez!!!*



Kaiet Eskamendi
 Ekainak 16, 5 urte.
*Esku osoa beteko dezu urtez, ZORIONAK!
 Oso ongi pasa urtebetetze egunean eta muxu potolo bat zuretzako. Izarne, Egoi, aita eta ama.*

Pakito Saralegi
 Ekainaren 23an.
*Zorionak attuna!! Egun polita pasako dugu gure urtebetetzea ospatzen. Maite zaitugu.
 Joane eta famili guztiaren partez.*



Luana Bécarea
 Ekainaren 23an, 9 urte.
*Zorionak txiki !! Ongi pasa zure egunean!!!
 Muxu handi bat aita, ama eta Nikolasen partez!!!! Muaaaa!!!*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
 Idatz iezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

EKAINAREN 9AN IZANEN DA LORE, LANDARE ETA ZUHAITZEN I. AZOKA LEKUNBERRIN

Lekunberriko Lore, Landare eta Zuhaitzen I. Azoka joan den maiatzaren 19n egitea zegoen aurreikusirik, baina eguraldi txarrak antolatzaileen asmoak zapuztu zituen eta bertan behera uztera behartu zituen. Baina dagoeneko badugu data berria, ekainaren 9an, goizeko 10:00etatik 14:30etara bitarte Euskal Herri osoko hamabost haztegi inguruetakoko postuak izanen dira.



DATORREN URTEAN EUSKARA IKASTEKO %5EKO DESKONTUA

AEK euskaltegiak eskaintza berezia eskaintzen du datorren ikasturtean euskara ikasteke. Ekainaren 19a baino lehen aurrematrikulazioa eginez gero, %5eko deskontua aplikatuko da prezioetan, ordainketa modu malguagoan egiteko aukera eskainiko da eta taldeak eratzeko orduan leentasuna izanen duzu. Gainera, ikastaroa ez egitea erabakiko bazenu aurrematrikulazioaren %100 itzuliko dizute irailaren 26a baino lehen jakinaraziz gero.

Animatu eta eman izena ekainaren 19a baino lehen AEK euskaltegian!

UMEEN EGUN ARRAKASTATSUA BETELUN

Joan den maiatzaren lehen asteburuan Umeen Eguna ospatu zuten Betelun. Goizean jostailu trukaketa eta altxorraren bila jolastu eta gero, umeen arteko herri kirolak izan ziren frontoian. Bertan denak elkarrekin bazkaldu ostean ere, mota guztietako jolasak eta musikari ez zen falta izan!



EKAINAREN 6AN AMAITUKO DA ARALAR MUSIKA ESKOLAKO MATRIKULAZIO EPEA

Aralar Musika Eskolak 2019-2020rako matrikulazio kanpaina jarri du martxan eta ekainaren 6an izanen da izen emateko azken eguna. Edozein adinetako ikasleei eskaintzen die zerbitzua. Eman izena zure herriko udaletxean edo www.aralar.org atarian. Informazio gehiagorako jarri harremanetan 672 122 472 mugikor zenbakiaren bitartez.

MARTILLO TXIKIKO PERKUSIONISTEN KONTZERTUA BASABURUAN

Martillo Txikiko perkusionistek kontzertua eskainiko dute datorren ekainaren 21ean, larunbata, Aizarotzen. Emanaldia arratsaldeko 17:00etan izanen da Basaburuko Kultur Etxean. Igor De Castroren perkusio ikasleek euren onena emateko prest daude!



BADATOR URTEKO GAURIK MAGIKOENETAKOA!

Datorren ekainaren 23an, San Juan bezperan, suak piztuko dira gure herrietan eta suaren gainetik salto egiteko aukera izanen da. Ohitura den moduan Lekunberrin San Juan egunaren bueltan hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Ekainaren 22an esaterako, Lekunberriko II. Garagardo Festa ospatuko da eta ekainaren 24an berriz, haurren pilota partidak eta herri bazkaria izanen da (Egitarau osoa Agendan ikusgai).

SATORZULO GAZTE LOKALAK VI. URTEURRENA OSPATUKO DU EKAINAREN 8AN

Ekainaren 8an Arriben dagoen Satorzulo gazte lokalaren VI. urteurrena ospatuko dute. Goizeko 12:00etako poteoaren ondotik, bertso-bazkaria izanen da Alaia Martin eta Eneko Lazkozekin. Bazkalondoan urteroko mus txapelketa azkarra egingen da eta arratsaldeko 19:00etatik aurrera Dj Satorzulorekin parranda luzatzeko aukera izanen da. Bazkarirako sarrerak dagoeneko salgai daude Beteluko Ostatuan eta Arribeko Surtidorean, 25 eurotan. Eurekin urteurrena ospatu nahi duzuen guztiok gonbidaturik zaudete!

MERKATU TXIKIA BARAIBARREN EKAINAREN 8TIK 9RA

Urte luzez antolatu izan da Baraibarren bigarren eskuko merkatu txikia. Lan handia suposatzen du aurrez egin ohi den material bilketa kudeatzea. Hala ere aurten, berriro ere egitea erabaki dute antolatzaileek, nahiz eta ohi baino merkatu txikiagoa izanen den. Liburuak, jostailuak, arropa, bitxiak eta beste hainbat gauza aurkitzeko aukera izanen da. Gainera taloak ere salduko dituzte.



VI.

SA
TOR
ZU
LO

Ekainak 8

12.00 Poteoa

14.00 Bertso bazkaria
ALAIA MARTIN
ENEKO LAZKOZ

18.00 Mus txapelketa

19:00 DJ Satorzulo

Menua 25€

- Urdaiazpikoa
- Patea
- Paella
- Arkumea
- Jogurra
- Kafea
- Kubata

*Txartelak Beteluko tabernan eta Surtidorean

Lehenengo kapitulua

Munduan asko gara, asko gara munduan, gara asko munduan... berdin dio nola esan, zeren mundu asko gara eta izaten jarraituko dugu. Baina garena ezin da gure egin, ez garrelako, ez gara denak, denak ez gara, zu zara, ni naiz, bakarrak gara, denak gara, baina gara bakarrak.

Hurrengo orrialdeetan bakar hauetako baten istorioa kontatuko dizuet. Pertsona bakar baten bizitza, pertsona bakarraren hitza, bere izatearen eta bizitzearen istorioa.

Bizirik zeuden eta garaiezin sentitzen ziren bi gazteren maitasun istorio batekin hasi zen dena, mutil gazte, sendo eta alai bat eta neska jator, irribarretsu eta polit bat. Bi pertsona arrunt hauek elkar ezagutu zuten, lagunak egin ziren... nahi gabean, nahien jolasean jokalaria bihurtu ziren, jolasten hasi. Baina jolasak arriskua ere badu, gezurra, joko zikina, asko dira trikimailuak. Aski jakina da jolasean ia beti galtzailea eta irabazlea daudela, eta batzuetan galtzailea jokotik kanpo egoten dela. Nor den nor bakoitzak erabaki dezake, arauak jarraitu, aldatu edo ukatu. Antzezle, narratzaile, txotxongilo edo ordezeko. Baina beti izan gogoan zuzendaria bakarra izaten dela eta berak esaten duela funtzioa noiz, eta nola bukatzen den, nork zapaltzen duen eta nor den zapaldua.

Joko gehienek daukate hasiera, baina hasieratik hasten direnak aspergarriak izan ohi dira, nahi gabekoak, bat-batekoak, benetakoagoak. Joko hau nahi gabean hasi zen, arauak inprobisazio hutsa izan ziren. Asko ez ziren bete, betetako asko ez



ziren arau eta ez zirenak asko arau bihurtu ziren. Jokalariak asko, trikimailuak gehiegi...

1937, Iruñea, negua zen, gaua, dena zegoen ilun, teilatu eta kaleak guztiz zurituta zeuden. Aberatsen etxeetako tximinietatik kea ateratzen zen. Gehiengoei itzali egin zieten sugarra, beste asko sua pizteko beldur ziren eta ugari ziren ere sutan erre, desagerrarazi, zituztenak.

Ez zen garai ona bizitzeko, beldurra zen agintari, negarra zigorturik zegoen, eta zigorrak mina eragiten zuten. Suminean isilpeko malko asko galtzen ziren elur maluta artean.

Hamabi kanpaikaden hotsa aspaldi galdu zen. Ametsak eta asmo onak ez ziren inoiz sortu.

Ilargiak bakarrik argizatzen zituen kaleak, ilargiak bakarrik izutzen

amets gaiztoak eta uxatzen beldurrak, ilargiak bakarrik lapurtzen zituen irri lausoak eta pizten itxaropenak. Ezkaba mendiko harrizko hormen artean egun bat gehiago pasa zen, batzuek azken eguna izan zuten, beste zenbaitek egun bat gehiago biziraun zuten, edo egun bat gutxiago zuten bizitzeko, denbora geldu zegoen.

Aspaldi entzun ziren kaleetan haurren algarak azkenekoz, eta asko ziren sekula irrik entzun ez zutenak eta inoiz gehiago entzungo ez zutenak. Bakardadea zen lagun bakarra.

Bakardade horren erdian emakume bat zebilen kalean, erraieran borrokan zegoen umetxoak mundura irten nahi zuelarik. Elur artean pausoa ordea ez zen erraza, gero eta zailagoa, gero eta mingarriagoa. Erietxera iritsi zenean ez zuen indarrik ia, baina ez zuen aukerarik, egin beharra zukan. Gela zuri hartan sartu zuten eta bultzatzeko eskatu zioten. Hotza zen, tristea eta heriotza usaina sumatzen zen. Ez zen erraza izan, orduak pasa zituen. Odol asko galdu zuen. mina jasanezina zen.

Azken indarrekin etorri zen lehenengo marrua ordea, lehenengo arnasa eta bizitzan aurrera egiteko lehenengo oihua. Txikia zen, baina handienaren ausardia zeukan, indartsuenaren sendotasuna, ameslariaren gogoia eta gudariaren arima.

Neskatila txikia mundura iritsi zen, prest zegoen munduarentzat. Prest jolasa hasteko. Mundua maltzurra zen ordea. Eta ez dago maltzurren irribarrea baina gauza jostalariagorik.



leuze

Leire Aranburu

Pertsona helduak, Gizartea sustraitik eraldatzeko

Aurtengo ekainaren 3an, 40 urte bete dira Gladis del Estal ekologista donostiarra eraila izan zenetik. Tuteran ari zen protestan zentral nuklearren aurka eta mundu hobe baten alde. Berak, beste mundu bat posible zela sinesten zuen eta nik ere, berdin sinesten dut. Eta sinesten dut norberaren eginkizuna dela Gizarte hobe bat eraikitzea. Nik nire mailan beti egin dezaket asko mundu hau hobetzeko, edo alderantziz, ezjakintasunak, arduragabekeriak edo egoismo hutsak eramanda, mundua doan bidetik segi bultzatzen.

Begi bistan dago geure Gizarteak arazo asko eta asko nozitzen dituela. Ez naiz hasiko hemen arazo guztiak banan banan aipatzen, gehienak gehienontzako ezagunak baitira, baina horrela segituz gero geure bizirau-pena espezie bezala kolokan jartzen ari gaitzake dagoeneko. Kontsumismo azeleratuak, elkartasun ezak zein elkarren arteko leiak, sinesmenitsuak, naturaren baliabideen erabilera neurrigabekoak, arbasoetatik barruan daramazkigun aritzeko modu ezkutatu destruktibo batzuk eta beste askok, oso inpaktu negatiboa ari dira izaten geure gizartean eta geure planetan. Adibide gisa aipatuko dut "oinatz edo aztarna ekologikoa", hau da, zenbat baliabide natural kontsumitzen ditugun urte batean eta honi aukera ematen ote diogun baliabideak berriz sortzeko. Hortaz, "oinatzaren" balio bat baldin bada, orekan gaude. Aspaldi oreka horretatik urruntzen ari gara. Esaterako, aurtengo maiatzaren erdirako,



mundu osoaren batezbesteko "oinatza" dagoeneko batekoa da, eta urtea amaituko denerako, bi eta erdikoa, gutxi gorabehera, izango da "oinatza". Alegia, geure erritmo kontsumista honetan segitu ahal izateko, geure planeta bezalako bi planeta eta erdi beharko genituzke oraintxe bertan. Jakina, horrela segitzen badugu, espezie bezala amaiera batera iritsiko gara seguruenik oso mende gutxitan.

Behin eta berriz, joera infantil edo heldugabeak ikusten ditut non-nahi. Zientzian eta teknologian zein gizartearen agintariengan, besterik gabe, soluzioa bilatzeak ez ditu arazoak konponduko. Arazoa kolektiboa da, guztiona, eta aldaketa kolektibo sakona eskatzen ari da. Horretarako, guztiok jarri behar dugu geure aldetik, goikoen zain egon gabe, hauek sarritan eskuak lotuta edo haien buruak salduta baitauzkate.

Arazoak handiak direnean jarraira helduak, pertsona helduak, behar ditugu aurrera egiteko. Nire arduren jabe egiten naizen neurrian, heldutasunez jokutzen dut. Nire buruarekin eta gizarte osoarekin, planeta osoarekin arduratsu izateko.

Nondik hasi? Badira martxan dagoeneko munduan mugimendu batzuk. Esaterako, Claudio Naranjok, psikiatra eta psikoterapeuta txiletarrak, duela urte gutxi abiatu zuen programa berritzaile bat, "Hezkuntza aldatu mundua aldatzeko". Programa honen helburua da hezitzaileei tresnak ematea haien buruak hobeto ezagutu, landu eta heldutasun handiagoa izaten laguntzeko, alegia, haien buruaren eta ikasleekin egiten ari direnaren kontzientzia hartzen laguntzea. Izan ere, hezkuntza sistemak maiz ez gaitu geure buruan jabe izaten hezi, kontrakoa baizik, salbuespenak salbu.

Hau bezalako beste zenbait ekimen daude. Guztiek antzeko helburua dute, mundu hau, gizarte hau, aldatzea guztion onerako, eta ez gutxi batzuen etekinerako soilik. Kontzientzia eta arduraren bideari ekin behar diogu, alegia, heldutasunaren bideari. Izan ere, XXI. mendeko iraultzak, pertsonen heldutasunaren eskutik etorri behar du. Helduak garen neurrian, uzten diogu manipulatuak, erabiliak, tontotuak izateko erraztasunak emateari eta geure bizitzen ardura eta geure gizartearena hartzen ditugu.



Hauteskundeak gurean

Joan den maiatzaren 26an Udalerrietako, Europako eta Nafarroako Parlamentuko ordezkariak hautatzeko hauteskundeak ospatu eta gero kale-ratu dira behin-betiko zenbaketen emaitzak.

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan, Navarra Suma izan da alderdirik bozkatuena. 20 aulki lortu ditu. Jarraian, Nafarroako Alderdi Sozialista (11 eserleku), Geroa Bai (9 eserleku), EH Bildu (7 eserleku), Ahal dugu (2 eserleku) eta Izquierda Ezkerra (eserleku 1). Eta ordezkariarik gabe gelditu dira, Vox, Equo, Nafarroako Ordezkaritza Kannabikoa (RCN-NOK), Libertad Navarra (LN) eta Autogestión Internacionalista (SAIN).

Europako ordezkariak erabakitzeke hauteskundeetan berriz, Sozialistek bozen %27,98 eskuratu

dute, PP-k %18,75, EH BILDU-ORAIN ERREPUBLIKAK %16, Podemos-IU-k %11,68, GBAI-k %8, Ciudadanosek %7,41 eta Vox-ek 4,20. Gainerakoak %1,03 azpitik gelditu dira.

Udalerrietako emaitzei erreparratuz gero, Beteluko Arbide Taldeak jarraituko du Udalean. %68,68ko parte-hartzea izan da aurten, zurian bozkatutakoak 21 izan dira eta baliogabeak 24. Talde berrian Mikel Rekaldek jarraituko du alkate eta berarekin izanen dira lanean, Ainhoa Oiartzabal, Teodoro Otamendi, Asier Elizalde, Igor Otermin, Ander Prados eta Kontxi Arraztio.

Araitzen ere udal talde berdinak jarraituko du, EH Bilduk, Gallur Zubillaga alkatearekin eta Nerea Martirena, Maider Agirrebarrena, Koldo Nuñez, Urko Gorostidi, Iraia Urrea

eta Koldo Garaikoetxearekin. Parte-hartzea %60,74koa izan da bertan, zurian bozkatutakoak 48 eta baliogabeak 11.

Larraunen aldaketa eman da, EH Bildurena izanen da alkatetza berria. Bozen %55,08a eskuratu ondoren, Baraibarko Mikel Huarte izanen da alkate berria eta berarekin batera beste lau ordezkari arituko dira, Lorea Lasarte, Josu Oreja, Xabier Azpiroz eta Ainhoa Permach. Larraundarrek %31,24arekin bi zinegotzi izanen dituzte, Jose Javier Barberena eta Raquel Molto. Eta Larraungo Taldea %10,91rekin ordezkariarik gabe gelditu da.

Lekunberriko Udalean, bi talde hautagaien aldeko lehia estua izan da. Lekunberriko Taldeak, bozen %50,57rekin alkatetza eta lau zinegotzi izanen ditu. Eta EH Bilduk ordezkari bat gutxiago, bozen %46,26arekin. Beraz, Gorka Azpiroz izanen da datozen lau urteotan alkate eta berarekin arituko direnak, Joseba Ordoki, Uxua Huici, Vicente Michaus eta M^a Jesus Ayestaran. EH Bilduren taldeko ordezkariak aldiz, Arkaitz Goikoetxea, Miren Goikoetxea, Mikel Betelu eta Aitziber Elea izanen dira.

Hautagaiak hauteskunde kanpaina honetan lan handia egin dute eta herritarrengandik jasotako erantzuna ere halakoa izan da. Horregatik Mailoperen bitartez eskerrak eman nahi dizkie herritarrei bai Lekunberriko Taldeak eta baita Lekunberri eta Larraungo EH Bilduk ere.



Larraunen zenbait kontzejuk ez zuten ordezkari lortu.

Arg: Labrit.

Beteluko eta Araizko udaletan talde berdinek jarraituko dute nahiz eta zinegotzi aldaketak egon diren.
Arg: Labrit.



LEKUNBERRIKO TALDEA

Pasa den maiatzaren 26ko hauteskundeen ondoren zuei zuzentzeko nahia sentitu dugu, eskerrak besterik ezin baititugu eman egun horretan bizitakoaren ondoren.

Ezin gara ahaztu urteetan zehar Lekunberrirentzat lan egin duten pertsoenez. Udala denbora, gogo eta ilusioa eskatzen duen proiektua da eta, nahiz eta ikuspuntu ezberdinetatik egin, bertan egondako zinegotziak herriaren onurarengatik lan egin dutela aho batez onartu behar da. Eskerrik asko Natalia, Esther, Mikel, Jaione, Javi, Juan Mari, Maialen eta Igor urte hauengatik, eta eskerrik asko atzean eduki dituzuen taldeei, beti daudelako begi bistatik kanpo lan egiten duten pertsonak.

Noski, Lekunberri zoriondu nahi dugu gure herrian izandako parte-hartze izugarriarengatik. Bizilaguen

nen %82 erabakiaren parte izan gara, 2015eko hauteskundeetako % 77-a gaituz, oso argi utziz herri hau inoiz baino biziago dagoela eta bere alde lan egin nahi dugula.

Aipamen berezia egin nahi diegu beren babesa eman diguten pertsonari, beraien bozken bidez hurrengo 4 urteetan egun hauetan erakutsi dugun jarrera eta filosofiarekin gobernatzeko aukera eman digutelako. Ilusio eta gogo izugarriekin heldu gara, ideia eta talde guztiz berrituekin, eta Lekunberriren alde lan egingo dugu herriari eta pertsonari lehentasuna emanez. Horrengatik beraien konfiantza oraindik irabazi ez dugun bizilagunei denbora eskatzen diegu, ingurukoak entzun eta ulertuz elkarlanean lan egiteko gaitasuna eta gogo dugula demostratuko baitugu.

Lekunberriko EHBildu zoriontzeko

ere aprobetxatu nahi dugu, bai lortutako emaitzarengatik bai eramandako hauteskunde-kanpaina garbiarengatik, guk ere egin dugun bezala. Bi taldeen programa eta ekintzatan argi ikusi da Lekunberriren onurak elkartzeko gaitasuna, proposamen asko antzeko norabidean joan baitira. Herrendik ateratako ondorio nagusia, bi talde ezberdin izanda ere, herri elkartu bat garelako da eta horretan lan egiteko prest gaudela. Horrengatik errespetu, jarrera on eta zintzotasunaren barruan, gure arteko elkarriketan eta akordioetan oinarritutako lanarengatik apustu egiten dugu, guztion artean Lekunberri hobetoago bat eraikitzeko.

Lekunberri, aurrera doan herri. Lekunberri bizirik.

ESKERRIK ASKO LARRAUNGO BAILARA, EMANDAKO BULTZADA ETA KONFIANTZARENGATIK

2019ko Udal Hauteskundeek agertoki berri bat ireki du Larraun bailarako bi udaletan. Ilusioaren indarrak astindu ditu Larraun eta Lekunberriko udalak eta udalerriak, eta emaitzak izan dira horren erakusgarri: 706 boto atera ditugu, Lekunberrin 408 eta Larraungo udalerrian 298, orain dela lau urte baino 219 gehiago. Lekunberrin 39 bozketara gelditu gara Alkatezta lortzeko, eta Larraungo Udalean, berriz, gehiengo osoa lortu dugu

eta Mikel Huarte izango da alkate berria.

EHBildutik zorionak eta eskerrik beroena eman nahi diegu gure aldeko botoa eman eta konfiantza erakutsi diguten herritarrei, proiektua indar berritu dutelako eta are ilusio eta gogo gehiago eman digutelako lanean jarraitzeko. Horrekin batera, lerro hauetatik adierazi nahi dugu prestutasun osoa dugula elkarriketarako, elkarlanerako eta akordioetara iristeko bi udaletan, Larraunen

Gobernu Taldetik eta Lekunberrin oposiziotik. Larraundarrak taldeak eta Lekunberriko Taldeak beti prest aurkituko gaituzte Larraun bailararen alde lan egiteko. Herritarrentzat ere zabalik dauzkagu eskuak eta ateak, beti bezala.

Orain, herritarren aldetik jaso dugun agindua betetzea tokatzen zaigu hurrengo lau urteetan, eta ez izan dudarik daukagun onena emango dugula.

Larraun bailarako EHBILDU.



Larraun eta Araizko zenbait herritarrek kontzejuetarako boza ere eman behar izan zuten. Arg:Labrit.

Udalek ekainaren 15era arte izanen dute udal aldaketa egiteko epea. Nafarroako Parlamentuan epe luzeagoa izanen dute eta ikusteko dago datozen asteetan alderdiek euren artean adostutako akordioaren behin-betiko emaitza zein izanen den.

KONTZEJUAK

Araitz eta Larraunen kasuan zenbait herritarrek laugarren boza bat ere emateko aukera izan zuten euren Kontzejuetako ordezkarietarako. Hala ere, zoritxarrez gero eta gutxiago dira Kontzejurako taldea osatzea lortzen duten herriak. Araitzen Uztegi bakarrik osatu du taldea eta Larraunen Azpirotz-Lezaeta, Uitz, Gorriti, Astitz, Baraibar eta Arruiz Kontzejurako bertako ordezkariak gabe daude oraingoz.

Horra hor, hauteskundeetan Kontzejuek izandako parte-hartzea eta ordezkariak:

ARAITZ

UZTEGIKOAK (Uztegi)

- Parte-hartzea: %50
 - Boza baliogabeak: 1
 - Zurian: 0
1. Pello Mikel Goikoetxea Garralda
 2. Santiago Tebernero Llopis
 3. Matias Goikoetxea Irigoien
 4. Pedro Ezkurdia Irurzun
 5. Francisco Javier Lasa Mendioroz

LARRAUN

ALBIASUARRAK (ALBIASU)

- Parte-hartzea: %71,43
 - Boza baliogabeak: 0
 - Zurian: 5
1. Manuel Maria Argaña Intxaurren

ALDAZTARRAK (ALDATZ)

- Parte-hartzea: 76,6
 - Boza baliogabeak: 0
 - Zurian: 4
1. Martin Jose Bildarraz Vergara
 2. Juan Ignacio Lizarraga Lazkano
 3. Juan Jesus Bildarraz Arraras
 4. Patxi Betelu Barberena
 5. Jose Javier Barberena Etxarri

ALLIKO TALDEA (ALLI)

- Parte-hartzea: % 66,67
 - Boza baliogabeak: 0
 - Zurian: 2
1. Calixto Satrustegi Azpiroz

ARRIZURI (ETXARRI)

- Parte-hartzea: 68,42
 - Boza baliogabeak: 0
 - Zurian: 0
1. Imanol Jaka Navarro
 2. Enrique Caballero Andonegui
 3. Miguel Lasarte Arangoa
 4. Miren Izaskun Olaskoaga Etxarri
 5. Asier Begiristain Gorostazu

IRIBAS JO TA KE (IRIBAS)

- Parte-hartzea: %35,14
 - Boza baliogabeak: 1
 - Zurian: 3
1. Maria Camino Garralda Garin

MADOKO TALDEA (MADOK)

- Parte-hartzea: %61,54
 - Boza baliogabeak: 0
 - Zurian: 2
1. Francisco Javier Arribillaga Zarranz

MUGIROKO TALDEA (Mugiro)

- Parte-hartzea: %67,24
 - Boza baliogabeak: 5
 - Zurian: 2
1. Jose Enrique Mariñelarena Tolosa
 2. Xabier Mirena Goldaratz Aldaia
 3. Belen Astiz Oyarzun
 4. Alain Bernabeu Galarza
 5. Mikel Astiz Oyarzun

ODERIZTARRAK (ODERITZ)

- Parte-hartzea: %57,5
 - Boza baliogabeak: 1
 - Zurian: 0
1. Miguel Maria Bidegain Ochandorena
 2. Iker Sanz Diaz
 3. Joseba Garcia Oderiz

ERRAZKINDARRAK TALDEA (ERRAZKIN)

- Parte-hartzea: 67,92
 - Boza baliogabeak: 1
 - Zurian: 0
1. Josu Oreja Arratibel
 2. Eneko Saralegi Martinikorena
 3. Ion Ezkurdia Azkona
 4. Miren Edurne Martinikorena Matxain
 5. Ikerne Ilarregui Martiarena

Nere Sotil



Nola indartu gure borondatea osasuna hobetzeko?

Zure osasuna, lana, ikasketak, bizitza... hobetu nahi baduzu, aldaketa ugari egin behar dituzu zure eguneroko bizitzan: elikadura, kirola, diziplina, arnasketa, erlaxazioa, meditazioa, ikasi... aldaketa hauek guztiak egiteko eta hobetzeko borondatea ezinbestekoa da. Laguntza eduki dezakezu, nutrizionista, kirol entrenatzailea, irakaslea, psikologoa... baina norberak du lan handiena, beraz gaurkoan, borondatea nola indartu azalduko dizuet.

“Erabaki errazak, bizitza zaila. Erabaki zailak, bizitza erreza”
Jerzy Gregory

Norberaren bizi kalitatea, modu handi batean, zure erabakien kalitatean dago, eta lehen aldiz gizakiaren historian gure erabakiak dira heriotzaren lehen kausa. Txokolatezko tarta batek gailentzen gaitu.

Gure osasuna hobetzeko eza-gutzak behar ditugu baina baita borondatea indartzeko estrategiak ere. Hona hemen horietako batzuk:

- 1:** Zure ideia eta helburuak garbi edukitzea. Motibazioak pertsona indartzen du. Idatzi zure helburuak.
- 2:** Plan bat egin eta egin jarraipena. Egitasmo hau jarraitzeko agian laguntza eskatu behar duzu: elikadura egokia jarriko dizun pertsona bat,

kirol ariketak jarriko dizkizun pertsona bat, arnasketa teknikak erakutsiko dizkizun pertsona bat...

3: Kontzientea izan. Hau oso-oso garrantzitsua da. Tarte bat hartu zure tentazioa eta erantzunaren artean, erabaki ona hartu ahal izateko.

4: Hasi pixkanaka zure aldatetekin. Ez dago presarik.

5: Pentsatu zure “etorkizuneko Nlan”.

6: Zure buruan tentazio bat aur-

kezten bada, ez saiatu tentazio hori burutik kentzen, baizik eta pentsatu zergatik aurkeztu den eta zer egin behar duzun.

Denak prezio bat dauka. Gaur diziplinaren prezioa ordaindu dezakezu, baina bihar damuarena ordaindu dezakezu. Zoritxarrez bigarren aukera da gehiengoa. Zuk erabaki!

Hurren arte.



LARRAUN-LEKUNBERRI

Kultura protagonista izan da maiatzean

Azkeneko alean iragarri genizuen moduan, kultur ekitaldiz betetako hilabetea izan da maiatza Larraunen. Lehenengo aste-buruan izan zen Bide Berdeen Egunarekin ireki zen egitaraua. Aurten, Angel Urrutiari omenaldia egin zioten bere heriotzaren XXV. Urtemugan. Hainbat kontzertu ere eskaini ziren, Kantinan eta Lekunberriko elizan eta Ahalduntze eta bizitza eskola tailerrak izugarritzko arrakasta izan zuen. Horra hor jasotako zenbait irudi.



Antsoenea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsoenea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KOMPONTZA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

SANPEDROAK

Hemen dira sanpedroak!!!

Uda iristearekin batera bertan dira eskualdeko herriz herriko festak eta urtero bezala, Beteluko eta Mugiroko San Pedro jaiak dira gurean goiztiarrenak. Mugiron aurten modu berezian emanen diote hasiera jaiak. Orain gutxi Lekunberritik herrira doan errepeidea berritu baitzuten eta behar bezalako inaugurazioa egingen dute. Gainera antolatutako ekitaldien artean ez dira faltako, aizkolariak, barrikoteak eta trikitilariak, besteak beste.

Betelun berriz, egun bat lehenago hasiko dituzte festak, ekainaren 27an, osteguna. Aurrez herri gosaria izanen den arren, eguerdiko 12:00etan botako dute ofizialki txupinazoa. Egunean zehar gazte nahiz helduentzako ekitaldiak izanen dira eta iluntzean urteroko herri afaria izanen dute. Igandera arte egitarau zabala antolatuko du bertako Jai Batzordeak. Mugiron nahiz Betelun, ongi-ongi pasa sanpedroak!



Mugiroko jaiak

Ekainak 28, ostirala

12:00 Errepide berriaren inaugurazioa
13:00 Luntxa Mugiroko Bentan
20:00 Txupinazoa
21:30 Herri afaria ostatuan
Trikitilariak: Eva eta Ane

Ekainak 29, larunbata

(San Pedro Eguna)
11:00 Santuaren omenezko Meza
12:00 Luntxa ostatuan
13:00 Aizkora apustua: Iker Vicente – Mikel Larrañaga
16:00 Puzagarriak
17:00 Mus txapelketa
20:00 Barrikotea, Eva eta Ane trikitilariekin
21:00 Batukada
22:00 Dantzaldia DUO ALAITUREkin

Ekainak 30, igandea

11:00 Meza
11:30 Erronda Eva eta Ane trikitilariekin
17:00 Pilota partidak: Larraungo Pilota Eskola
19:00 Txokolatada ostatuan

Beteluko Sanpedroak

Ekainak 27, osteguna

11.00 Herri gosaria
12.00 Txupinazoa!
12.15 Ume jokua
17.00 Puzgarriak
18.00 Frontenis txapelketako finala
20.00 Iratzar taldearen emanaldia
21.00 Herri afaria, eta ondoren bingo musikatua
00.30 Iratzar taldea goizaldera arte

Ekainak 28, ostirala

07.00 Herri gosaria gaupaseroentzat!
11.00 Umeen arteko areto-futbol txapelketa
17.00 Mus eta dardo txapelketak
18.30 Aizkora apustua:
Ruben Saralegi - Txomin Amundarain VS Eneko Saralegi - Ibai Soria
19.30 Ardo zuri dastaketa
20.00 Trikiteens taldearen emanaldia
22.00 Zezen suzkoa
00.30 Trikiteens taldea
02.30 DJ Jotatxo goizaldera arte
Egunsetian, parrandero argazkia!

Ekainak 29, larunbata, San Pedro Eguna

7.00 Aurorokak
8.00 Diana
12.00 Meza nagusia San Pedroren omenez
13.00 Pilota goxua txapelketako finala
14.30 Paellada eta ondoren paella arteko "El precio justo" lehiaketa
18.00 Puskabiltza trikitilariak alaiturik
19.30 Elektrotxuflaren kontzertua plazan
*Bitartean gazta zaharra eta ardoa banatuko dira
22.00 Zezen suzkoa
0.30 Bad Sound System taldearen kontzertua
02.15 DJ Mikel Sevillano goizalderarte

Ekainak 30, igandea

12.30 Umeen pilota txapelketako finalak
17.00 Aitzur eta zartari tiraketa
18.30 Alur dantza taldearen emanaldia
19.30 Aralar Musika Eskolako ikasleen musika jaialdia
*Bitartean tortilla lehiaketa
Ondoren premio banaketa eta tortilla dastaketa
21.00 Herri afaria
Ondoren traka finala eta txozna irekiera parranderoentzat!

Intsumisioa gogora ekarriz

Orain dela hiru urte jarri zuen mar-txan intsumituei buruzko proiektua Labrit Multimedia eta ondoren, IZAR Films ekoiztetxea batu zen. Aurt-en aurreikusten da "2 Urte, 4 Hilabete" dokumentala grabatzea, Lander Garroren zuzendaritzapean.

2012an, Gobernuak kartzela eraitsi baino ordu batzuk lehenago, Labrit Multimedia izan zen barruan grabatzeko baimena jaso zuen ekoizte-txe bakarra. Kartzela, dokumentuak, ziegak... den-dena grabatu zuten bertan intsumitu preso izandakoe-kin, 25 bat urte geroago.

Gaztetan arrazoi ezberdinengatik (erlijioa, espainiar nortasun eza, anti-militarismoa...) soldaduskaren kontra konprometitutako 6 intsumituren esperientziak bilduko ditu lanak. Zer zuten galtzeko? Zer irabazteko? Nola eragin zien kartzelara nahita sartzea-ren erabakiak familiei? Garai hartako pentsaerarekin jarraitzen dute edo denborarekin aldatu egin dira? Me-rezi izan zuen beren borrokak?

Mikel Rekalde beteluarra garai hartako intsumituetaoetako bat izan zen, gainera urrutiratuak izan ziren preso gutxi horien artean ere

egon zen eta 21 eguneko baraualdia ere egin zuen.

Mikel, nolakoak izan ziren intsumisioaren mugimenduarekin izan zenituen lehen harremanak?

Zaragozan, Albaitaritza ikasten ari nintzela, pisu-kide bat eta biok kontzientzia-eragozpen mugimen-du antimilitaristara gerturatzen hasi ginen. Guri hango mezua gustatu zitzaigun eta 24 urterekin, behin ikasketak amaituta, etxera itzuli nintzen. Baina jarraipena emateko Iruñeko KEM-MOC (Kontzientzia Eragozpen Mugimendua) taldearekin jarri nintzen harremanetan.

Zenbat urterekin iristen zen eskutitza?

21 urte ingururekin, baina ikasleen kasuan askok oporraldiak aprobe-txatuz egiten zuten eta gainerakoek luzapenak eskatu eta ikasketak bukatutakoan. Nik ere luzapenak eskatu nituen, ikasketak bukatu, eta Manisesen (Valentzia) soldaduska egitera joateko eskutitza iritsi zitzaidan arte. Ordurako nik erabakita nuen ez joatea eta hala jakinarazi nien. 1989tik 1994ra bitarte ez nuen epaiketarik izan, asko luzatu zen, eta bien bitartean asko inplikatu nintzen KEM-en (Kontzientzia Eragozpen Mugimendua).

Zer planteatzen zuen KEM mugimenduak?

Estatua Ordezko Zerbitzu Soziala betetzera bideratzen hasi zen Kontzientzia Eragozpenagatik sol-





Lagun eta senideak bisitan joaten zitzaizkion Mikeli espetxean zela. Argazkian, Kontxi Arraztio beteluekarekin Iruñeko espetxean. Arg: Utzitakoa.

daduska egiten ez zutenak. Baina KEM-ek soldaduskaren ordezkia zela ulertzen zuten, eta horregatik horri ere desobedientzia egitea aldarrikatzen zuten. Soldaduskara joan behar zuten askok KEM-era hurbiltzen ziren informazio eske. Eta KEM-en erabaki pertsonalak errespetatu egiten ziren beti, nolanhikoak izanik ere. Ondoren, Felipe Gonzalezen Espainiako Gobernuak zigor kodea aldatu egin behar izan zuten. Zigor kode zaharrarekin urtebeteko zigorra izaten zen eta aurrekaririk ez bazen ez ziren espetxera joaten, eta jendea horren jakitun izanik desobedientziara batzen zen. Estatua horretaz oharturik, zigor kodea aldatu eta bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra ezartzen hasi zen soldaduskari nahiz ordezko gizarte zerbitzuari desobedientzia egiteagatik. Uste zuten, jendea espetxera sartuz gero, desobedientzia egiteko joerarekin amaituko zutela.

Baina zuri epailearen aurretik pasa eta gero urtebeteko zigorra ezarri zizuten...

Bai. Epaiketaren esperoan zegoen jende multzo handi bat gainera kentzeko urtebeteko zigorrak ezarri zituen lehenik eta hortik aurrera bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorrak ezartzen hasi zen estatua. Orduan, mugimendu politikoak berriro dena aztertu ondoren, hurrengo pausoa planto egitea izan zen. Aurretik ginenoi urtebeteko zigorrarekin

etxera bidaltzen gintuzten eta aldamenekoak barrura. Beraz, urtebeteko zigorra izanik ere espetxera joatea erabaki genuen.

Eta zu ere espetxera joan zinen...

Nik ordurako argi neukan espetxera joango nintzela eta halaxe joan nintzen 1994ko maiatzean Iruñeko espetxera. Iruñeko espetxea betetzen ari zen intsumisoz, eta ordurako ere espetxe erregimenak beste estrategia bat martxan jarria zuen masifikazioa saihesteko. Intsumisoei jarrera ona argudiatuta, sartu eta berehala hiru garren gradura pasatzen gintuzten, hau da espetxera lo egitera baino ez genuen joan beharrik. Nafarroan 300 preso inguru zeuden eta guztiz gairatzen zuten Iruñeko espetxeko edukiera. Horren aurka ezin genuen ezer egin, beraz euren mesederako pozoituriko sagarra eskaintzen zigitela jakinda (errugabetzen ez gintuztelako), jarrera txarrarekin kondena urratzen genuen, hau da, lo egiteari joateari uzten genion. Eta orduan atxilotzera behartzen genituen, bigarren gradura bueltatuz.

Zu, beste hainbat intsumisorekin batera urrutiratua izan zinen...

Bai. Guk Iruñeko espetxe barruan gure borrokarekin jarraitu genuen eta tartean baita euskara eskubideengatik ere. Araudia ikasi genuen eta gure eskaerak euskaraz idazten hasi ginen... Eta barruan indarra genuela ikusita, goiz batean guk espero gabe gutako zortzi hartu gintuzten eta abi-

atu gabe estatuko zortzi espetxetan zehar banatu gintuzten. Niri Ocaña lra eraman ninduten. Baina intsumisoekin ez zuten arazo handirik izan nahi espetxeek. Lagunek Ocañaraino joaten jarraitu zuten, halakoetan gertatzen den moduan, zigor handiago izaten da ingurukoentzat preso dagoenarentzat baino.

Zenbat denbora egon zinen guztira espetxean?

Hamar bat hilabete. Hamar horietatik lau Iruñeko espetxean eta gainerakoak Ocaña lln. Gure bizitzari jarri genion eginkizun bat zen. Nik asko ikasi eta disfrutatu nuen. 50 pertsona geunden Iruñean bigarren graduan, 200 pertsona ziren gauero lo egitera etortzen zirenak eta kalean mugimendu handia zegoen. Babesa sentitzen genuen, espetxe barruan gure batzarrak eta dinamikak genituen eta kanpoaldearekin ere harremana genuen bisiten edo eskutitzen bitartez. Kalean babes talde asko sortu ziren baita Araitx eta Betelun ere, eta horietan emakumezkoak ere izugarri inplikatu ziren, anaiak, lagunak edo ezagunak zituztelako eta beraiek eredu militaristaren pairatzaileak ere bazirelako, nahiz eta soldaduska egitea ez eskatu. Desobedientzia zibila oso serio eraman zen, antolaketa izugarria izan zen eta mugimendu askotan ez bezala bakoitzaren erabakia errespetatu egin zen, mugimenduan adostutako irizpideak eta erabakiak betetzera inor behartu gabe.

Eskualdeko lau neskek parte hartu dute EHME-ko VII. lasterketan

Aurten, lehen aldiz, 67 kilometroko lasterketa erreleboka egiteko aukera eskaini dute Euskal Herria Mendi Erronkako antolatzaileek. Emakumezkoen parte-hartzea sustatzea zen helburua eta aurreikuspenak bete egin ziren joan den hilaren 18an egin zen proban. 34 emakumezkoak parte hartu zuten erreleboka eta 26 proba luzean, beraz guztira 60 izan ziren korrika aritu eta amaitzea lortu zuten emakumezkoak. Horietatik lau bertakoak izan genituen. Arribeko Izar Amundarain gainera bigarren sailkatu zen errelebokakoan Goar Lopetegirekin batera lasterketa 7 ordu eta 23 minutotan egitea lortu eta gero. Sailkapen nagusian, bikoteka Garazi Artolak eta Ibai Madinak osatutako bikoteak egin zuen denbora onena, 7 ordu, 10 minutu eta 26 segundo.

Goizeko zortzietan, 654 korrikalari irten ziren Leitzako plazatik, horietatik 582 lasterketa osoa egiteko asmoz, nahiz eta 459k baino ez zuten lortu lasterketa amaitzea. Bestalde, erreleboka parte hartu zuten 36 bikotetatik, bi baja baino ez ziren izan. Iazko giro beroarekin alderatuta baldintza hobeak izan dituzten korrika egiteko, nahiz eta eguerditik aurrera euri zaparradek ia ez zuten etenik izan.

Proba nagusian, Ion Azpiroz berastegierra izan zen VII. Lasterketako txapel-duna (06:45:07) eta haren atzetik sailkatu zen Gaintzara iristen lehena izan zen Jonatan errioxarra (06:57:32) eta Basauriko Iker Echevarria (07:05:31). Emakumezkoetan, Uxue Frailek eraman zuen txapela (08:04:36) eta bigarren eta hirugarren gelditu ziren Silvia Trigueros bizkaitarra (08:18:46) eta Izaskun Zubizarreta donostiarra (08:47:44).

Eskualdeko sailkapenari dagokionean, Alfontso Etxarrirentzat izan zen titulua. Zazpi ordu eta 54 minututan lortu zuen helmugaratzea. Eta handik minutu gutxira iritsi zen Mikel De Carlos lekunberriarra.

ESKUALDEKOAK ERRELEBOKA

1. Izar Amundarain eta Goar Lopetegi	07:23:56
2. Iñaki Elizalde eta Maddi Sotil	08:56:09
3. Oihan Igoa eta Irati Moreno	09:19:06
4. Alaitz Olano eta Jon Otermin	09:19:41

IZEN-ABIZENA	HERRIA	DENBORA	KM BERTIKALA
1. Alfontso Etxarri	(Arruiz)	07:54:51	01:05:38
2. Mikel De Carlos	(Lekunberri)	07:57:38	01:01:51
3. Julen Elordi	(Arribe)	08:40:38	01:06:53
4. Joseba Eskamendi	(Betelu)	09:40:07	01:18:42
5. Ivan González	(Lekunberri)	10:05:17	01:26:41
6. Andoni Otxotorena	(Lekunberri)	10:05:19	01:17:33
7. Imanol Jaka	(Etxarri)	10:50:39	01:18:59
8. Iñigo Garmendia	(Betelu)	10:52:2	01:28:08





450 boluntario inguru

Araitz, Areso, Betelu, Larraun, Leitza eta Lekunberriko 450 boluntariok parte hartu zuten egun horretan eta aurreko nahiz ondorengo egunetan antolakuntzan. Lan ikaragarria suposatzen du halako lasterketa bat antolatzeak eta ezinezkoa litzateke euren borondatez aritzen diren herritarren laguntzari gabe, horregatik antolakuntzak eskerrak eman nahi dizkizue aurtengoan ere, beste behin, emandako laguntzagatik. Hotzari eta euriari aurre egin behar izan zioten horietako askok, eta gogorra izan zen batez ere, goialdean ibili zirenentzat. Bestalde, balorazio positiboa egin du antolakuntzak aurten hondakinak eta batez ere plastikoa murrizte aldera eta berrerabilpenaren alde egindako apustuari dagokionean. Nafarroako Gobernuko Hondakinen Prebentziorako Bulegoarekin eta Mendialdea nahiz Araxes Garaiko Mankomunitateekin egindako elkarlanari esker izugarri murriztu dira plastikozko hondakinak. Ingurumenaren babesa, Euskal Selektzioa eta lurraldetasuna baitira besteak beste EHME-k oinarritzat dituen balioak.



Informazio gehiago eta sailkapen osoa: www.rockthesport.com edo ehmendierronka.eus atarietan.

BASERRI HANDIA SALGAI

Ikusi Idealistan: 948 23 13 13

- Etxarri Larraun.
- Porlanezko bi solairu eta ganbara.
- Toki zoragarrian eta etxaurre egokiarekin.

ETXEA SALGAI

- Etxarri Larraun.
- 2 Etxebizitza bakoitza bere saiferarekin.
- 2 Familiarentzat egokia.
- Lursaila etxebueltan.

948 23 13 13 Ikusi Idealistan:

Ekainaren 9an izanen da XVI. Aralarko Ibilaldia

Ttuturre Kirol Elkartek, Lekunberriko Udalaren eta Kirol Mankomunitatearen laguntzarekin, Aralarko Ibilaldia antolatu du datorren ekainaren 9rako. XVI. edizioa izanen da aurtengoa eta 2019ko Nafarroako Mendi Txapelketaren barruan sartu dute. Ibilbidean ez da aldaketarik aurreikusten. Bi urtetik behin antolatzen den mendi martxak 33,4 kilometro dauzka eta Lekunberri, Ttuturre, Beloki eta Artxueta zeharkatzen ditu berriro ere Lekunberriera bueltatuz.

Ttuturre Kirol Elkarteko kideek nabarmendu dute edonork parte hartu dezakeela, baina gutxieneko prestakuntza bat izatea eta mendiko kiroletan federatua izatea gomendatzen dute, izan ere, ibilbide luzea eta desnibel handikoa da, 1.735 metroko desnibel positiboa baitu.

Bestalde, Aralar-Belokiko pistan, Putzutzar-San Migelen eta Lekunberri iristerakoan kontrol eta anoa-guneak jarriko dituzte. Eta amaieran ohitura den moduan, parte-hartzaileek plazan bertan prestatutako paella goxoaz gozatzeko aukera izanen dute. Irteera ordua goizeko zazpitan izanen da, Lekunberriko Plazan. Egunean bertan, goizean goiz, izen emateko aukera izanen da, baina aurrez apunta zaitzke www.mendizmendi.com web-orriaren bitartez.

Martxari buruzko informazio guztia eskuragarri dago www.ttuturre.com edo www.mendizmendi.com atarietan.

Jarduera anitzeko udalekuak

Kirol Mankomunitateak uda honetarako udalekuak antolatu ditu Larraun eta Lekunberriko sei eta hamabi urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta. Bi txanda eskainiko dira. Lehena, uztailaren 8tik 25era bitarte eta bigarren txanda abuztuaren 5etik 22ra bitarte. Asteleheneretik ostegunera, 10:00etatik 13:30etara Lekunberriko Plazaola kiroldegian elkartuko dira nahiz eta kanpoan ere jarduera asko egingo dituzten. Izan ere, kirol modalitate ezberdinak egiteaz gainera, natur jarduerak, euskal jolasak, kultur ekintzak eta beste asko egitea aurreikusten baita. Txanda bakoitzeko 75 euro ordaindu beharko ditu ikasle bakoitzak eta taldea osatzeko gutxienez 10 lagun beharko dira. Izen emateko epea ekainaren 21ean amaituko da Plazaola kiroldegian edo Kirol Mankomunitatean (948 60 4545 / 649 205310 kirolmankomunitatea@gmail.com).



Araxes Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketan

Gizonezkoetan 320 kilogramoetan lehen aldiz jokatu dute Araxes Herri Kirol Taldeko mutilek Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketan. Aurten Kadeteen mailan hiru jardunaldi jokatu dituzte, eta gizonezkoen 320 kilogramotako modalitatean beste bi jardunaldi. Aurtengoa ez da Sokatira Txapelketa emankorra izan Araxeskoentzat. Kadeteek ez zuten zorte handirik izan eta azken saioan taldekide bat gutxiagorekin egin behar izan zuten tiraldia lesio batengatik. Gizonezkoetan, sorpresarik ez. Lehen urtea zuten, lan txukuna egin arren, Donezteben eta Antsoainen jokaturako bi saioetan azken postuan gelditu ziren. Hala ere, Unai Ijurko entrenatzailearen arabera, interesgarria eta beharrezkoa izan da aurtengoa gizonezkoen mailari neurria hartzeko.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Beti Kozkor profesionalen artean

Aurtengo denboraldiko ligan laugarren sailkatu ondoren, Play Off-a jokatu eta Bigarren B mailara igotzeko aukera izan du aurten Beti Kozkorrek. Joan den urteko denboraldian hamargarren sailkatu zen taldea eta jaitzieratik hurbil ibili bazen ere, azkenean nahiko ongi eutsi zion.

Aurten hobeto ibiltzea zuten helburu, baina eurek ere ez zuten uste halako emaitzak lortzeko gai zirenik. Jon Ander Unanua, Beti Kozkorreko prestatzaile fisikoa eta entrenatzaileetako bat: *“Denboraldiarekin hasi ginen eta partidak irabazten eta irabazten hasi joan ginen eta momentu batean salbatzea lortu genuen. Ligako momentu batzuetan hirugarren edo laugarren ibil ginen. Eta guretzako meritu izugarria dauka gure bezalako herri txiki bateko taldea izanik Osasuna B bezalako talde profesional batekin jokatzeko edo Tallako Peña Sport ere beti bigarren B mailan aritu izan dena edo Mutilvera ere ia profesionala da”.*

Hiru talde horiekin batera igoera fasean sartzea lortu du aurten Beti Kozkorrek eta Mallorca B-ren aurka egokitu zitzaion Play Off-a jokatzeko. Joanekeo partida Lekunberriko futbol zelaian jokatu zuten joan den maiatzaren 26an. Golik gabeko berdinketa izan zen egun hartakoa eta astebete beranduago Mallorcan izan zen itzulera partidari. Han ordea, ezin izan zioten aurre egin eta 0-4 galdu zuen Beti Kozkorrek Mallorca B-ren aurka. Beraz, beste aukera baten zain gelditu beharko du Bigarren B mailara igotzeko.

Aurtengo denboraldi onaren gakoa zein izan den argi dute: *“Bost urtetan lau igoera izan ditu Beti Kozkorrek eta jokalaria egokitzen joan dira eta guri oso ongi etortzen zaigun joko estiloarekin asmatu dugula uste dut. Maila honetara egokitze gaitasuna izan dugu eta hori izan da gakoa”.*



M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

**Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala**

948513056
699179437

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

**BERTAKO
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea Nº7
31890 BETELU

Tel: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

Erakusketa berria aurkeztuko du Juan Gorritik Azkuen luxuzko gonbidatuekin batera

Datorren ekainaren 8an Juan Gorriti artistak bere lan berriaren erakusketaren irekiera egingen du. "Gaztari Erakusketa – Mailopear" izena daraman artelan erakusketa berri onekin, bere haurtzaroko oroitzapenak ekarri nahi izan ditu orainaldira. Besteak beste, egurrezko ehunka pieza ezberdinekin osatutako crómlech bat izanen da kanpoaldean egindako erakusketa honetako protagonista. Gure arbasoek urtetan eta urtetan egindako lanaren jarraipena irudikatzen duena, "zirkulu horretan denak bat garelako".

Oraingoan bertatik bertara Gorritiren lanez gozatzeko aukera izanen da, Araitzen bertan izanen baita erakusketa, Azkue parajea. Ekainaren 8tik 23ra bitarte asteburu arteaz gainera, bertsolaritza, musika, poesia, kirola eta antzerki ekitaldiak izanen dira Araizko txoko horretan.

Erakusketaren irekiera, ekainaren 8an, arratsaldeko 18:00etan izanen da eta bertan izanen dira Kukai Dantza Konpainiako Jon

Maya errenteriarra, Peru Madalena eta Gotzon Garaizabal bizkaitarrak bere 2D1 proiektuarekin, Jon Martin idazle eta bertsolaria eta baita bertako txalapartariak diren Ion Gorriti eta Peio Goikoetxea, eta Ibai Soroa eta Txomin Amondarain aizkolariak. Zentzumen guztien gozamenerako eskaintza zalantzarik gabe. Eta punta-puntako artistak elkartuko dituen inaugurazioan luxuzko bi sukaldari ere izanen dira. Roberto Ruiz sukaldariak eta Rafa Gorrotxategi gozogileak eurek prestatutako jakiak eskainiko baitituzte bertaratzen direnentzat.

Ekaineko hurrengo lau asteburuetan zehar Mikel Markez, Sonakay, Pirritx, Porrotx eta Marimots eta hainbat eta hainbat bertsolari pasako dira bertatik, beste askoren artean. Beraz, ez ezazu arte eta kultur eskaintza paregabe hau galdu eta hurbil zaitez Azkuera!

Ekaineko hurrengo lau asteburuetan zehar Mikel Markez, Sonakay, Pirritx, Porrotx eta Marimots eta hainbat eta hainbat bertsolari pasako dira bertatik, beste askoren artean. Beraz, ez ezazu arte eta kultur eskaintza paregabe hau galdu eta hurbil zaitez Azkuera!



 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza**

IORTIA LIJINGA BIDEA - HORTZ BIZKIA
Juanjo Gait García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



GAZTARRI ERAKUSKETA MAILOPEAN

Ekainaren 8an, 18:00etan.

Irekiera ekitaldia
Jon Maya
"Peru Madalena / Gotzon Garaizabal 2D1"
Jon Martin

Ekainaren 9an 12:00etan,

Sustrai Kolina - Uxue Alberdi
18:00etan Josetxo Silguero

Ekainaren 12an, 11:00etan,

Pirritx, Porrotx eta Marimotots + Txapas

Ekainaren 15ean 18:00etan

Mikel Markez eta Esti Markez

Ekainaren 16an 12:00etan

Miren Amuriza, Alaia Martin eta Julio Soto

Ekainaren 22an, 12:00etan.

Gema Ines eta Lara Mitxelena
Maddalen Arzallus - Amets Arzallus

Ekainaren 23an, 12:00etan.

Bertsolariak
18:00etan Mikel Markez eta Esti Markez
"Peru Madalena / Gotzon Garaizabal2 d-1"



Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU bar

ETXKO PIZZAK.
KOPA BERGIZAK

948504352

LAGUNDU MAILA
LAGUN

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

Gaixotasun neurodegeneratibo frontolateral, gizarte gaixotasun bat gehiago.

Geroz eta gehiago inguratzen gaitu.

Esan edo egin duena gogoratu ezinik hasten da (estresa?), gero inguruan dituen pertsonen izenak ahazten ditu, gauzak ezin ahoskatu hasten da, gurpil aulkian mugitzen da, eskua emanaz eta aurpegian irribarre bat duela agurtzen zaitu, alor publikotik aldentzen hasten da bere etxeko eta familiaren pribatutasunerantz... eguneko egoitzen eta egoitza berezitzen laguntza behar du... Eta bere presentziaren faltara ohitzen joaten zara...

Baina oroitzen al zara?

Oroitzen al zara zein pertsona ona zen? Mirestekoa zen gauzak nolako sosegarekin hartzen zituen ikustea. Zeinen ezti hitz egiten zizun. Zeinen umezalea zen. Nola maite zituen bere ingurukoak, bere familiako senide guztiak. Nolako maitasun eta pazientziatz zaindu zituen bere aita-amaginarrebak. Eta zenbat maite zuen Artazu.

Gogoratzen zeinen ona zen sukaldean? Zeinen ongi aprobetxatzen genuen denek Gautxori Elkartean ekitaldi gastronomikoak antolatzeko jartzen zuen pasioa, edozein aitzakia zela, kirol nahiz kultur ekitaldietarako laguntza eskatzen zitzaionean: pilota txapelketarako, Lekunberriko Legoarako, bertso saioetarako, Mitxauseneako Arte eta Kultur Programako taldeentzako edo Aralar Musika Eskolarentzako... Salda beroa eta arrautzak Ttuttureren Aralar Mendi Martxako anoa-gunerako, Lekunberriko ihauterietako lehen hamaietakoa, Ruandaren alde diru bilketa egiteko lehen paella, Pilarika jaietako Ezkonduen Eguna, San Juanetako txistorrak... hainbeste izan ziren...

Gogoratzen al zara bere beste pasioaz? Gurpilak!! Oraindik Felix bera ikus dezaket bere Ford Sierra zuriarekin rallyak ikustera joaten. Zenbait urtez hemen ere antolatu izan zituen halako lasterketak: Rally Rac Navarra. Eta Kurpil ziklista taldea? Oroitzen al zara?

Eta ostiralero kuadrillan egiten genituen afariak... Gure asteroko oasia. Horretaz arduratzeak erlaxatu egiten zuela zioen berak. Eta guk ere izugarri gozatzen genuen. Jaten irakatsi zigun, eta batzuei baita sukaldean ere... Baina batez ere zoriontsu izaten erakutsi zigun. Zoriontsuak, sinpleki.

Oroitzen zara, ezta?

Nola ahaztuko zitzaizun ba? Ezinezkoa da.

Lekunberrik inoiz ezinen zaitu ahaztu, Felix Ruiz Ciriza laguna.



NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

urrutia enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADII! TLF BERRIA:
948 51 30 32

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

Lontxo Otamendi Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

panaderia okindegia

GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

EKAINA

8 | LEKUNBERRI:

Satorzulo VI. urteurrena. 12:00etan poteoa, 14:00etan bertso bazkaria Alaia Martin eta Eneko Lazkozekin, 18:00etan mus txapelketa eta 19:00etan Satorzulo DJ.

9 | LEKUNBERRI:

Lore eta Landareen I. Azoka. 10:00etatik 14:30etara, herriko plazan.

21 | AIZAROTZ:

Bateria kontzertua eskeiniko dute Martillo Txikiko Perkusionistek. 17:00etan Basaburuko Kultur Etxean.

SAN JUANAK LEKUNBERRIN

22 |

Lekunberriko II. Nafar Garagardo Festa. Garagardo naparra, saltxitxa bokatak eta musika.

23 |

12:00 - Munduko sukaldaritza: pintxoak dastatzeko. Musika: Dominikar Errepublika, Kuba, Argentina, Bulgaria, Nikaragua, Euskal Herria.

21:30 - Suak, musika, txistorra, batukada, dantzak, kantak.

24 |

09:00 - Dianak

10:00 - Hurren pilota partidak

14:00 - Jubilatuen bazkaria Ayestaran Hotelean

14:00 - Herri bazkaria eta bingoa

LAN ESKAINTZA

Aralar Kanpinean lan egin nahi duzu uda honetan? Harrera lekuan lanean aritzeko pertsona baten bila gabilta. Noski, euskara, erdara eta ingelesa, jakin beharra dira. Lan baldintza onak. Interesaturik bazaude, deitu 948 504 011 edo 667 797 904 zenbakietara.

LAN BILA

Lan bila nabil, pertsona langilea eta serioa. Pisuzko gauzak ezin hartzea litzateke eragozpen bakarra. Harremanetarako: 632 758 860 (Lekunberri).

SALGAI

Egurra txikitzeko makina, eta traktorearentzat erremolkea: 2m zabalera x 3,5 luzera. 699 328 480 (Juantxo).

Baseri bat saltzen da Atallun. Egoera onean eta inguru ederrean. Harremanetarako: 646 703 705.



ekin
rotulacion
948 85 32 79



SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



tanatorios
IRACHE
Betidanik
ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es



LARRAUNGO EGUNA 2019

EKAINAK 15

ARRUITZ

- 
- 10:00etan Txistulariak
11:00etan Pilota partidak
12:00etan Tirikitrauki dantza taldea
13:00ean Aralar Musika Eskolako trikitilariak
14:00etan Argazki erraldoia
14:30etan Bazkaria
16:00etan Gazte abesbatza
16:00etan Puzgarriak
16:30etan Helduentzako ikuskizuna
17:00etan Paint-ball (12-17 urte bitartekoentzat)
18:30etan Gazte olinpiada
19:30etan TRIKIDANTZ
20:00etan Barrikotea
Ondoren DJ OIXANI
Egun osoan zehar Argazki Paita!!